



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteartea
2009-01-06**

VIIURTEA 1.595 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

ILUSIOZ BETERIKO BISITA

TOLOSALDEA - LEITZALDEA Atzo iluntzean hasi zituzten euren bisitak, gure herrietan, Hiru Errege Magoek

ETORRERA Herritarrek, batez ere gaztetxoek, besoak zabalik eta hunkiturik itxaron zuten hauen etorrera **4-5**



Hiru Errege Magoak Villabonan sarrera egin zuten unea. Gazttxoenentzat egun berezia izan zen atzokoa. A. IMAZ

Antonio Zavala ikertzailea, euskaltzaina eta herriko seme kuttuna hil da

TOLOSA 2002an izendatu zuten seme kuttun, eta 64an, berriz, euskaltzain oso **6**

Inaxio Perurenak ezin izan zuen 295 kiloko harriarekin

LEITZA Bi saiakera egin zituen harri-jasotzaileak Asteasuko pilotalekuan **6**

Oso jendetsuak izan ziren San Sibestre krosak eskualdean **6**

BABA LO SALTZAILEA

«Oso jende ona ezagutu dudalako gustatzen zait Tolosaldera etortzea»

GIZARTEA Etorkizun hobearen bila etorri zen duela 13 hilabete Euskal Herrira; gure eskualdean «oso gustura» sentitzen dela dio **7**



L.T.



Jantzi dotore, jantzi hitza.

zirak
elastikoak
jertseak
fularrak
buffak...

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza**



1. Ibilbideko lehen eskultura Triangulo plazan dago kokatuta, eta hurrengoa Gipuzkoako Artxibo Orokorren atarian; 2. Bata Jorge Oteizarena da, eta bestea Ricardo Ugarterena. ESTI EZEIZA

Eskulturen bidetik herria ezagutuz

Dagoeneko Tolosako kale, plaza eta oro har, paisaiaren zati diren artelanek zehazten duten ibilbidea jarraituz, txango bat proposatzen dugu.

ESTI EZEIZA

Eskulturez, eta oro har, arte-lanez hitz egiten dugunean museoak etortzen zaizkigu burura. Hauek izaten baitira artista ezagunen lanen biltoki ohikoak. Gehienon ustea da arteaz gozatzeko hauetara joan beharra dagoela. Baina, Tolosak duela urte asko apustu bat egin zuen, eskulturak kalera ateratzeara. Era honetara, hiriko kaleak artelan ezberdinen etxe bilakatzea lortu zuen.

Ekimen honekin gure eguneroko bizitzan artea txertatzea lortu da. Askotan bereaien ondotik ohar-kabea igarotzen bagara ere, gure kaleetako paisaiaren zati dira dagoeneko eskulturak. Gainera, ia denek lotura berezia dute hiriarrekin eta duten kokagunarekin. Baina seguruenik, eskualdeko herriar askok ez dute jakingo eskultura hauen esanahia. Hori dela eta, Tolosako hirigunean zehar, ibilaldira bat prestatu dugu, honetarako, hiriko eskulturak izango dira ardatz eta gidari.

Txangoaren hasiera puntua Tolosako Triangulo plaza izango da. Bertan, enparantzaren erdian, Jorge Oteizaren *Atauts* aurki daitezke. Obra hau Oiarzungo Caldererria y Galvanizados lantegian egin zen. Triangulo plazaren lurazpia gehiegizko pisuagatik honda zitekeenaren beldurrez, plazaren azpiko aldea zurkaiztu zuten garai hartan. Jarri eta egun gutxira, inauguratu aurretik, pintaketa desatsegin ez estalita agertu zen *Atauts*. Hala, Jorge Oteiza Tolosatik pasatu zen egun batean, eta sekulako haserrealdia hartu zuen, eskultura berehala kentzeko aginduz. Baina azkenean akordio batera iritsi ziren, eta egun, oraindik ere Triangulon mantentzen da *Atauts* eskultura.

Atauts, eraikuntza hutsa hiru unitate positibo negatiborekin izan zen tamaina handira pasatu eta leku publiko batean jarri zen Oteizaren lehen lan handia.

Proiektu kultural honen garrantzia ikusteko ikuspuntu historikoa ere kontuan hartu behar da. Or-

duan, krisiak jotako herria zen Tolosa, eta eskultura garaikideko erakusketa iraunkor hau ez zen nabaria eta lanposturik ere ez zuen sortzen. Horregatik, honek zertarako balio zuen galdetzen zuten askok. Urteak aurrera joan ahala, egitasmoaren benetakoa esanahia ikusi zuten herritarrek. Hau da, Tolosa sustatzea erreferentzi kultural moduan. Hala, gaur egun ezin da Triangulo plaza *Atauts* ik gabe ulertu.

Historia gaztelu batean

Triangulo plaza albo batera utzi eta ibilbideko lehen pausoak emango ditugu San Frantzisko ibiltokitik barrena. Gipuzkoako Artxibo Orokorren aurrealdean, Ricardo Ugarteren *Oroimenaren gaztelua* topatuko dugu.

Artxiboaren aurrean kokatutako lan hau Ugarteren gazteluense-rie luzearen barruan sartu behar da. Kasu horretan, Ugartek argi ikusi zuen piezak ez zuela bolumen handiegia izan behar, eraikinarrekin kontrajarritza ez egoteko. Alderantziz, honen elementu hurbila izan behar zuen. Komunitatearen guneak eskulturaren eremu naturala dira Ugarteren ustean, hau da, kaleak, enparantzak, lorategiak...

Nekazaritza munduaz

Txangoarekin jarraituz, San Frantzisko ibiltokitik beherantz jarraituko dugu. Baina, Hirukideko ikastetxearen aurrean, bidea gurutatu eta Emeterio Arrese plazara iritsiko zara. Hemen Zaharren egoitzaren aurrealdean, Nestor Basterretxearen *goldea* aurki daitezke.

Bermeotarrak Tolosako proiektuan izan zuten parte-hartzean aldatuta bat egon zen. Hasiera batean, bere lana Euskal Herria plazako angelu batean kokatzekoa zen, Tolosako Inauteri ospetsuak gogoratzeko asmoz, brontzeko hiru maskara handi jartzeko asmoa zegoen. Baina, azkenean proiektua atzeratu egin zen eta kokalekua aldatu, Emeterio Arresera hain zuten ere. Honenbestez, proposatutako gunea baratze eta soro eremua izan zela kontuan hartuz, egilea nekazaritza munduarekin konektatzera eraman zuen. Horrela, Nestor Basterretxeak *goldea* diseinatu zuen, bizitza tradizionala gogorarazten duen golde handia.

2000ko otsailaren 19an inauguratu zuten eskultura. Artistak ordutan honela azaldu zuen zergaitia, «arreta jarritz gero, egitura abstraktua dela ikus daitezke, hazkundeen

jatorrian dagoen eta lurra irekitzen duen tresna. Ideia positiboa da. Goldea nekazaritza munduan etorkizuna da. Tolosan oraindik bizirik dirauen Tolosa zahararen zati bat».

Zezen-plazaren oroigarria

Emeterio Arrese plazatik, orain, oso metro gutxira dagoen zezen-plazara bideratuko gara. Hemen, plazaren ehungarren urteurren-eko ekitaldien baitan, Tomas Hernandezen eskultura kokatu zuten 2003an. Zezen baten figurari arlekin batena erantsi zion Hernandezek, Tolosako Inauteriei erreferentzia egiteko. Giza figura horren txapelak Poca Tripa konpartsa betteranoak erabiltzen duen agogorazten du. Eskultura honekin, Inauteriak eta zezena letasuna omendu nahi izan zituen egileak.

'Kantu ixila'

Tomas Hernandezen eskultura alde batera utzita, txango honetan aurkituko dugun harrizko lan bakarrean bila abiatuko gara. Hone- tarako, Berazubi aldera abiatuko gara, hau eta zezen-plaza banantzen dituen zubia zeharkatuz. Hemendik, eskailera batzuk igoaz, auzoaren atzealdetik, Sakramentinoen egoitzaren ondotik igaro eta



Hurrengo eskultura Nestor Basterretxearena da, eta laugarrena, Tomas Hernandezena. ESTI EZBIZA

Zabalarreta parkea aurki daiteke parez-pare. Euskal Eskulturgintza Garaikideari buruzko Erakusketa Iraunkorrean sartu den azken lana da Koldobika Jauregiarena. Tolosaren 750. urteurrena ospatzeko ekitaldien baitan, 2007an, 750 Fundazioak Jauregiari ekimen berezi bat egiteko eskatu zion. Hala, alkizarrak harri blokez egindako neurri handiko 15 eskulturrekin bete zuten herria 2006ko udan. *Kantu ixila* seriea Zuberoan hainbat belaunaldiz txorien kantua imitatuz ahapean abesten zituzten kantuetan oinarrituta dago. Hasieratik, erakusketa behin-behinekoa izatea zen ideia, baina piezetako bat iraukorki geratuko zelarik. Honenbestez, 400 bizilagunek bozkatu zuten eta Zabalarreta parkea aukeratu zuten kokaleku gisa.

Zintzilik utzitako pieza

Harrizko eskultura bakar hori begiztatu ostean, berriro ere metalarekin egindako artelanetara igaroko gara. Honetarako, gure ibilbidearekin jarraituko dugu. Igarondo igerileku zaharrak zeuden lekutik igaroaz, Ibarako sarreran dagoen biribilgunea igaro eta Zumardi Txikiaren ingurutik beharantz bideratuko gara. Hemen, errekarren

izkinetik Jon Andoni Irazusta pasealekua gurutzatuko dugu Jose Ramon Andaren eskultura dagoen lekura iritsi arte.

Tolosarako eskultura bat egiteko eskatu ziotenean, Anda pilotazalea zen, eta frontoiarekin lotutako zerbait egitea proposatu zuen. Gainera, hasiera batean, Andaren lana Beotibar pilotalekuaren ondoan jartzea pentsatu zuten. Alabaina, laster, espazio zabalago eta irekiago batera pasatu zuten, Trinkete plazara. Nahiz eta hura ere pilotaren munduarekin lotuta egon, Jose Ramon Andak hasierako egitasmoa aldatzea erabaki zuen. Izan ere, esfera eta pilota iradokizten zituen hasierako pieza hurabi hagaren gainean zegoen, eta dardara egiten zuten. Gune publiko batean egonda, iraungo ez zuten beldur zen artista eta diseinu gogorrago bat aukeratu zuen. Hala ere, honek piezaren arintasunari eusten zion, egitura baten gainean zintzilikatu baitzuen.

Lizardiren poesia moduan

Txangoa amaierara iristen ari da. Hiriguneari itzulitxo eman ondoren, berriro Triangulo aldera bideratuko gara. Baina lehendabizi, azken parada egin beharra daukagu.

Trinkete plazatik, Arrameleko Zubia igaro eta Alde Zaharrean barrera sartuko gara. Hemen Kale Nagusia igaro eta Plaza Zaharretik, Santa Maria elizara joango gara. Hemen alboan, Aranburu Jauregiaren atarian Eduardo Txillidak egindako «Lizardiren poesiaren moduko» artelana erreparratu daiteke. Hau da, estetikoki sinplea den eskultura. Altzairuzko xafla bat erabili zuten, eta bi forma huts egin zizkion. Eskultura 1983ko abenduaren 11n inauguratu zuten, Tolosako Udalean Lizardiren omenez egindako ekitaldi akademiko batean. Garai hartan esan zen, ordurako, bahin-behinekotz jarri zutela Aranburu Jauregiaren arkupean, eremua berrantolatuta arte, alegia. Berrantolatetarako luze iraun zuten. Santa Maria elizaren ondoko Amarrandegi eraikina bota ondoren eta Aranburu Jauregia erabilera kulturalerako zaharberri ondoren, eskultura 1997an berreskuratu zuten. Jauregiko lorategian jarri zuten, bista Oria ibaira duen leku eder batean.

Beraz, azken eskultura ikusi ondoren, berriro Triangulo plazara itzuliko gara gure txango berezi, eta aldi berean aberasgarri honi amaiera emateko.



Ibilbideko azken eskulturak ondorengoena da: Koldobika Jauregi, Jose Ramon Anda eta Eduardo Txillida. ESTI EZBIZA

Antonio Zavala ikertzaile eta euskaltzain tolosarra hil da

Tolosa » 1928. urtean jaio zen jesulaguna; Humanitate, Filosofia, Irakasle eta Teologia ikasketak egin zituen.

ERREDAKZIOA

Hilaren 2an hil zen Antonio Zavala Etxeberria euskaltzain oso tolosarra Iruñeako ospitale batean 80 urte zituela. Zavala euskaltzain osoa zen, jesulaguna eta baita ikertzaile ere. Lehen ikasketak herriko Aita Eskolapioen ikastetxean egin zituen eta ondoren, 17 urterekin, Loiolako Santutegira joatea erabaki zuen. Santutegian Humanitateak ikasi zituen eta ondoren

Filosofia ikasketak ere egin zituen. Urte batzuk beranduago, gainera, Irakasle ikasketak egin zituen eta Teologia ere ikasi zuen. 1959an ordenatu zen apaiz.

Euskaltzain oso

Arestian aipatu moduan Zavala euskaltzain osoa zen eta heriotza dela eta Euskaltzaindiak helarazitako oharrean bizi osoa «herri literaturaren onarpenari, azterketari, zabalkundeari eta suspertzeari» eskaini ziola azpimarratu du.

Bertsolaritzarekin lotura handia zuen jesulagunak, gainera. 1949. urtean bereganatu zuen bere lehen bertsopapera, Pello Saikoa bertsolariari erositakoa, eta haientzat osatu zuen *Auspoa* liburua.



Galtzaundiren Eskerrak Zuri saria jaso zuen Zavalak (ezkerrean). GALTZAUNDI

Lan honen ondotik bilduma ere osatu zuen, 1961. urtean, *Sagardoren graziya* izenburuarekin, eta liburu honetan, gainera, Ramon Artola bertso-jartzaile tolosarraren bertsoak ere bildu zituen.

1961an izenpetu zuen Euskantziadiak euskaltzain urgazle eta 1964. urtean euskaltzain oso, «euskararen eta herri literaturaren alde egindako lana eskertzeko asmoz», euskaltzaindiak argitu zuenez.

Herriko seme kuttun

Sari eta izendapen ugari jasotakoa zen Zavala, horien artean 2002an Tolosan eskainitakoa, herriko seme kuttun izendatu baitzuten. Honekin batera, 1996. urtean Durangoko Azokan Argizaiola saria ere jaso zuen eta 1999an Deustuko Unibertsitateak honoris causa doktorea ere eman zion.

Aipatu guztiari tolosarraren ikertzaile sena ere gehitu behar zaio, izan ere, *Auspoa* bilduma osatzeko ikerketa lan ugari egin behar izan zituen Zavalak. Andres Urrutia euskaltzainak «nekez aurkituko da Euskal Herrian halako bildumarik eta nekezago, bistan da, Zavalaren modukorik», esan du zentzu honetan.

Perurenak ezin izan zuen 295 kiloekin

Leitza » Bi saiakera egin zituen harri-jasotzaile leitzarrak Asteasuko pilotalekuan, baina ez zuen harria sorbaldaraztea lortu.

ERREDAKZIOA

Inaxio Perurena harri-jasotzaile gazteak ezin izan zuen 295 kiloko harria sorbaldaratu. Bi saiakera egin zituen bere marka gainditu asmoz Asteasun, baina ezin izan zuen. Oraingoz behintzat, bertan behera utzi beharko du datorren urtean 300 kiloak jasotzeko nahia.

Leitzarrak saioa egin baino lehen argitu zuen katarro baten ondorioz nahiko makalduta egon zela, baina ez zuen espero katarroan horrenbesteko kaltea eragingo

zionik. Bi saiakera hutsalak egin eta gero lur jota agertu zen gaztea komunikabideen aurrean.

290 kiloko harria

Orain urte bete lortu zuen leitzarrak 290 kiloko harri angeluzuzena jasotzea Asteasun bertan izandako herri jokoan jaialdian. Nahiko erraz lortu zuen orduan harria sorbaldaraztea eta horregatik animatu zen 2008. urtean bost kilo gehitzera. Bere helburua ez da makala, gainera, 300 kiloko harria jaso nahi baitu harri-jasotzaile gazteak.

Perurenak bide luzea du oraindik, nahiz eta ondo ari den, bere aitaren marka berdintzeko, izan ere, Iñaki Perurenak 320 kiloko marka du. Mieltxo Saralegik, aldiz, 329 kiloko marka.

San Silbestreko lasterketa jendetsuak

ERREDAKZIOA

San Silbestre zela eta eskualdean egindako krosetan jende ugari hartu zuen parte. Lizartzan esate baterako, herritar ugari bildu zen eta lasterketa egin eta gero txokolate beroa ere banatu zuten, gainera. Villabona-Zizurkilen, aldiz,

485 pertsonek korritu zuten. Lasterketarik jendetsuena, hala ere, Tolosako Elkartasun Krosa izan zen, non ia 900 korrikalarik hartu zuten parte; 350 helduk eta 475 gaztek, hain zuzen. Berastegin ere egin zuten krosa eta jende askok hartu zuen parte honetan ere.



Lizartzako San Silbestre lasterketan hartutako irudia. HITZA

Hasi dira Binakako Txapelketaren lehen partidak

Tolosa » Atzokoan Bengoetxeak eta Belokik jokatu zuen Beotibarren Xala eta Laskurainen kontra.

ERREDAKZIOA

Hasi da jada Euskuzko Binakako Txapelketa. Leitzako Barriolak eta Gonzalez pilotariak 13-22 irabazi zituen Eibarren jokaturako partidari Berasaluze VIII eta Zearrari.

Atzokoan, aldiz, Tolosako Beotibarren izan ziren partidak; Bengoetxea VI eta Belokik 22-18 irabazi zituen Xala eta Laskuraini. Mendizabal-Urrizelki eta Bellosa-Apraizen arteko partida berriz, bigarrenengo alde, 18-22, amaitu zen.

Laburrak

Abenduaren 24ko zozketako emaitzak

AMEZKETA » Amezketako Guraso Elkarteak abenduaren 24an egin dako zozketaren emaitzak eman ditu jakitera. Horiak horrela, saskiaren saria 1.055 zenbakiak irabazi du, nekazal etxe baterako aste-buru pasa eta 300 euro 1.601 zenbakiak eta bi laguntzako afaria berriz, 588 zenbakiak.

Amarozko loteria kobratzeko argibideak

AMAROTZ » Amarozko Auzo Elkarteak Eguberrietan salgai jarritako loteria bihurtik aurrera kobratu daitekeela esan du, zehazki, hil honetako astelehen eta asteazkenean 18:30etik 19:30era Auzo Elkartearen lokaletan (mediku kontsultadagoen tokian) edota erositako dendan edo tabernan bertan.

Musika Bandaren Errege Kontzertua, gaur

TOLOSA » Tolosako Musika Bandak ohikoa den Errege Kontzertua eskainiko du gaur, 12:30ean, Tolosako Musika Eskolako entsegu gelan. Bandaren hurrengo kontzertuak hauek izango dira: otsailak 8 lurreamendiko kontzertua, otsailak 15 Inauterietako kontzertua eta otsailak 22 Inauterietako Diana.

Zesta Puntako XIV. Urte Zahar Txapelketa

TOLOSA » Igandean jokatu zituzten Beotibarren zesta puntako XIV. Urte Zahar Txapelketako finalak. Gazteen artean Bidartek irabazi zion Donibane Lohitzuneri 25-23 eta kadeetan ere Bidartek irabazi zuen 30-29 Tolosako Beotibarko taldeari. Giro ederra egon zela azpimarratu dute antolatzaileek.

Salneurri bereziak gaur, Merkatu Txikian

TOLOSA » Urtero Laskorain Ikastolak antolatutako Merkatu Txikiak gaur itxiko ditu bere ateak. Hori dela eta, gaurkoan salneurri bereziak izango dituzte; euro bat eta birren artekoak. Kultur etxean dago Sahararen eta Indiaren aldeko merkatua; 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

E Elkarrizketa

BABA LO Saltzailea

Gizartea » Duela 13 hilabete iritsi zen Euskal Herrira, Senegal utzita; kokaleku bezala, gure eskualdea aukeratu du, «oso gustura» sentitzen baita bertan.

INIGO TERRADILLOS

Ezaguna da herrian, tabernaz taberna makina bat herritarrengana gerturatzen baita lepokoak, esku-larruak, musika, filmak... eskainiz. Hori da bere eguneroko lanbidea, harat eta honat, goizean hasi eta gauera arte, poliki-poliki, biharko eguna hobea izango denaren itxaropenarekin. Erlijioz musulmana izaki, Babak (Ñiombre, Senegal, 1986) ez ditu Gabonak ospatzen, eta ez dio ez Olentzerori ez eta Errege Magoei oparirik eskatu, baina bada edozer opari baino gehiago desio eta behar duena, bere egoera erregularizatuko duen lana edukitzea.

Zenbat denbora daramazu Euskal Herrian?

Duela urte bat eta hilabete iritsi nintzen.

Zergatik Euskal Herrira?

Nire anaia Ousmanek 5 urte daramatza hemen, eta horregatik etorri nintzen hona. Markinan bizi da bera, eta han kokatu nintzen nire.

Markinan bizi, eta Tolosara hasi zinen etortzen saltzera. Zergatik?

Gustatzen zait Tolosara eta Ibarrrara etortzea. Jende ona topatu dut hemen, eta gustura aritzen naiz. Jendeak asko laguntzen dit, eta hori eskertu beharra daukat, batez ere tabernariei eskerrak eman nahi dizkiet, eta baita laguntzen didaten guztiei ere. Leku guztietan bezala, denetarik dago hemen, hau da, jende ona eta ez hain ona, baina nire kasuan, jende onascorekin egin dut topo.

Jendearen laguntza, beraz, ezinbestekoa da.

Bai, jendeak lagunduko ez balit, oso zaila izango nuke aurrera egiteko.

Dena den, zailtasun handiekin egiten duzu topo zure egunerokoa.

Bai. Etxebizitza bat lortzea, esaterako oso zaila da. Eta lana bilatzea zer esanik ez. Baina, pixkanaka joan behar da.

Espero zenuen bezala al da?

Nik banekien hemen bizia ez dela batere erraza. Anaiarekin telefonoz hitz egiten nuenean berak esaten zidan ez zela erraza.

Batez ere lehenengo egunak zailak egingo zitzaizkizun, ezta?

Bai. Ni hegazkinez etorri nintzen, bisa batekin. Beraz, zailago izan zitekeen, asko eta asko etortzen baitira pateretan, nire anaia bezala. Baina, nire kasuan, errazagoa izan zen. Hori bai, asko ordaindu beha-



«Oso jende ona topatu nuelako hasi nintzen hona etortzen»

rra izan nuen horretarako. Lehen egunak, bereziki, zailak izan ziren hizkuntzarengatik, ez bainekien ezer. Kanean ikasten joan nintzen gaztelania pixkanaka, baina hasieran oso zaila egin zitzaidan jendearekin ulertzeko.

Egunero irteten zara zure karroarekin kalera.

Bai, astelehenetik igandera. Ez dut atsedetik egiten. Goizean hasten naiz, eta gauerdia arte-edo ez dut amaitzen.

Zertaz lan egitea gustatuko litzaizuke?

Edozertan lan egiteko prest nago, niretzat garrantzitsuen lana kontratu bat izatea baita, ondoren paterak egin ahal izateko. Horrek

nire egungo egoera asko hobetuko luke.

Familia hain urruti izatea zaila izango da, noski.

Bai. Oso garestia den arren, hilean bitan behintzat saiatzen naiz eurekin telefonoz hitz egiten. Horretaz gain, dirua ere hilean behin bidaltzen dut beraientzat. Diru gutxi izaten da, baina beharrezkoa berarekin aurrera egiteko, han lanik ez baitute, beraz, dirurik ere ez.

Zuek bidalitako dirutik bizi diru orduan.

Baietz esan daiteke. Han, norma-lean, familiak hemengoak baino handiagoak dira; nirea, esaterako, oso handia da, ume askorekin, eta, esan bezala, beharrezkoa da nire

anaiak eta nik dirua bidaltzea, jateko egunero izan dezaten.

Noiz joango zara berriro Senegalera bisitan?

Une honetan ezin naiz joan, nire egoera dela eta. Kontratu bat dudanean eta nire egoera erregularizatzen dudanean, orduan joan ahalko naiz familia bisitatzera. Ordura arte ez. Nire anaiak, esaterako, 5 urte daramatza Senegalera joan gabe, eta ondorioz, bere emaztea ikusi gabe.

Zer kontatzen diezu zure kide edo lagun senegaldarrei hemengo egoeraz?

Ez diet esaten ez etortzeko, baina egoera nolakoa den azaltzen diet. Lan gutxi dagoela kontatzen diet,

eta pixkanaka-pixkanaka joan behar duzula, ez pentsatzeko segituan lortuko dutenik lana eta ondorioz paperak.

Pixkanaka-pixkanaka joan behar da, beraz.

Bai, poliki-poliki eta lasai-lasai. Ez dut pentsatzen gauzak segituan lor daitezkeenik. Egunero nire lana egitean, kanean saltzean, pentsatzen dut; iritsiko da egoera aldatu eta hobera egingo duen eguna.

Zu ezagutzearen ondorioz edo, zure lurraldea ezagutzea joan nahi dutela esaten dizute askok.

Hala da. Ezagutzen dudan jende asko joan da Senegalera, eta nirekin hitz egin izan dute joan aurretik haren inguruan zertxobait jak-

«Hilean behin bidaltzen diedan diruarekin bizi da Senegaleko familia, han ez baitago lanik»

«Pixkanaka eta lasai joatean pentsatzen dut; iritsiko da gauzek hobera egingo duten eguna»

teko. Askok esaten didate Senegalera joan nahi dutela, eta ni asko poztzen naiz, oso polita baita, eta jende onez bete da. Guztiak gomendatzen ditut oporretan hara joan daitezkeen.

Euskal Herria ere gustatzen al zaizu?

Bai, oso polita da, eta asko gustatzen zait. Jende ona dago, eta oso lasaia da. Tolosa ere, esan bezala, asko gustatzen zaidan herria da.

Desberdintasun handiak egongo dira Senegal eta Euskal Herriaren artean.

Bai, gauza askotan da desberdina. Lurraldea bera, paisaiak-eta; jendea desberdina da, ohitura desberdinak ditugu; jatekoa ere desberdina da gauza askotan...

Hango ohiturak mantentzen al dituzue hemen?

Batzuk bai. Senegalen, guztiok batera ontzi beretik eta eskuarekin jaten dugu, eta hemen ere, etxean senegaldarrek bizi bagara, ohitura hori mantentzen saiatzen gara.

Hizkuntzarekin zer moduz moldatzen zara?

Une honetan Tolosan bizi naiz, eta eskolara ikastera joan naiteke. Horregatik, Helduen Hezkuntzara joaten naiz gaztelania ikastera. Eta gero, euskara ikastera ere joan nahi dut. Asko gustatzen zait ikastea, eta nahiko erraza egiten ari zait idaztea, irakurtzea eta hitz egitea, kontuan hartuta, ez duela zerikusirik gure ama hizkuntzarekin. Euskaraz eta gaztelaniaz ondo hitz egiten ikasi nahi dut.

13 hilabete egin dituzu hemen. Aurrera begira non ikusten duzu zure burua?

Ez dakit. Lana aurkitu eta lana egitea da buruan dudana, ez dut etorkizun urrunean gehiegi pentsatu nahi.



4°
0°

GOIZA EURIA
ARRATS. EURIA
BEROENA 2°
HOTZENA -1°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Aduna.** Asvinenea Kultur Elkar-teak III. Poltsikoko Antzerki Lehiaketa antolatatu du profesional zein amateurrentzat. Informazioa eta izen-ematea, www.asvinenea.com webgunean.
- **Tolosa.** XXVII. Eguberrietako Shanti areto-futboleko Txapelketa Usabal kiroldegian. Gaur, finalak, 10:00etatik aurrera.
- **Tolosa.** Merkatu txikia 3. Munduaren alde Kultur Etxean, Laskorain ikastolak antolatuta.
- **Tolosaldea.** Abian da Sahararen aldeko Euskal Karabana, *Piztu Itxaropena* lelopean. Eskualdean, Tolosaldea Sahararekin elkartea ari da aurrera eramaten janari biketa: arroza, lekaleak, pasta, hegaluzea oliotan, sardinak oliotan, azukrea eta konpresak.
- **Tolosa.** Veleta-Aiz Orratz elkar-teak 75 urte beteko ditu aurten. Argazki zahar eta berrien erakusketa ari da prestatzen eta horretarako materiala biltzen ari dira. Bazkideek, bazkide ohiek eta zerbait dutenek, elkartera eraman dezakete. Informazioa 655 738739 zenbakian.
- **Tolosa.** Eski irteera Formigalera antolatatu du Oargi mendi elkar-teak hilaren 17 eta 18rako. Informazioa eta izen-ematea, 943 675612, 688 698642 eta www.oargi.org.

Zinema

- **Tolosa.** Leidor aretoan, 19:30ean eta 22:00etan, 007, *Quantum of Solace*.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
- **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Palestinaren alde eta Israelen aurka

TOLOSA • Munduko hainbat herritan gertatu den bezala, Tolosan ere Palestinaren aldeko oihua entzun zen atzokoan. Triangulotik 200 lagun inguru irten ziren manifestazioan, «Gora Palestina, Israel genozida!» lelopean. Alde Zaharretik barrera «Palestina askatu!» oihukatuz ibili ondo-

ren, hasierako puntuan amaitu zen manifestazioa. Bertan, Israel Gazan burutzen ari den «sarraskia» eta «nazioartearen isiltasunak genozidio hau bideratzen duela» salatu zuten. Israelen erasoak Gazan jadanik 500 palestinaren heriotza eragin du, 2.500 zauritzaez gain. R. CALVO

A Agurrak



Zorionak Ane!

Zure tronpetista kuttunenaren partetik, 19 muxu goxo-goxo.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leiztan: Udaletxeko bulegoa

agurrak

LIBURUA SALGAI

Salmenta:

Liburuaren prezioa: 18 €
Galtzaundi eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko Hitzako bazkideak: 14 €

Eskaintza bereziak:

5 liburu 80€	10 liburu 140€
-----------------	-------------------

Salmenta puntuak:

- Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leizaldeko Hitzako bulegoetan,
- Tolosako Aranburu, Babel eta Elkar liburutegietan.
- Ibarako Lurdes liburutegian.
- Villabonako Basajaun liburutegian.

